


2004. urtean %11 gehitu zen gizarte zerbitzuetan egindako gastua

Herri administrazioaren ekarpena gastuaren %70 izan zen

EUSTATen datuen arabera Euskal Autonomia Erkidegoan, 2004. urtean, 1.196 milioi euroko gastua egin zen gizarte zerbitzuetan, hau da, aurreko urtean baino %11,5 gehiago eta EAEko BPGaren %2,2 izanik. Biztanle bakoitzeko batez besteko gastua 562 eurokoa izan zen, eta horietako 393 funts publikoetatik hartu ziren.

Lurraldeka, Araban %8 gehitu zen gastua, Bizkaian %13 eta Gipuzkoan %11. Biztanleko, Araban izan zen beste lurraldeetan baino gastu handiagoa, biztanle bakoitzeko batez bestekoa 686 eurokoa izan baitzen; Gipuzkoan, ordea, 547 eurokoa eta Bizkaian 482 eurokoa.

Grafikoa: Gizarte zerbitzuetan egindako gastuaren bilakaera biztanle bakoitzeko



Iturria: EUSTAT

Herri administrazioek 838 milioi euroko ekarpena egin zuten (gastuaren %70), eta sektore pribatuak gainerako %30 eman zuen. Bestalde, emandako zerbitzuen trukean erabiltzaileek 169 milioi euro eman zituzten, hau da, gastu arruntaren %14a.

Sektorean %2,2 okupatu izan ziren

Gizarte zerbitzuetan, oro har, 20.600 pertsonari eman zitzaion lana zuzenean (okupatuaren %2,2ari) eta horien %68 emakumeak izan ziren. Zuzeneko arreta emateko 4.400 langile azpikontratatu ziren dedikazio osoan, eta azken kopuru hau kontuan

hartuta enplegua %21 gehitu zen. Azpikontrataturako langile horien erdiak etxeko etxeko laguntza zerbitzuan lan egin zuen.

Era berean, gizarte zerbitzuetan boluntario kopuru handia izan zen; 2004. urtean 15.608 boluntario izan ziren eta kopurua %13,1 gehitu zen aurreko urtearen aldean. Boluntarioek eskuzabaltasunez lan egin zuten sektorean.

1. taula: Magnitude nagusien bilakaera

	2004	2003	Δ% 04/03
Gastua (mila euro)	1.196.320	1.073.054	11,5
- Gastu arruntak	876.216	786.287	11,4
- Familietarako transferentziak	270.046	232.086	16,4
- Kapital-gastuak	50.057	54.681	-8,5
Gastua/Biztanleko (euro)	562,0	506,1	11,0
Gastua/BPG (%)	2,2	2,2	3,6
Finantzaketa			
- Finantzaketa publikoa	837.714	741.894	12,9
- Finantzaketa pribatua	358.606	331.160	8,3
Giza baliabideak			
Langileak guztira	36.221	32.657	10,9
- Bertako langileak	20.613	18.855	9,3
- Borondatezkoak	15.608	13.802	13,1
Material-baliabideak			
- Izakunde-kop.	1.304	1.266	3,0
- Zentro-kop.	2.512	2.388	5,2
- Egoitza-kop.	715	666	7,4
- Egoitza-plazak	19.596	18.750	4,5

Iturria: EUSTAT

Biztanle guztientzako gastua %18 gehitu zen

Gizarte zerbitzuak zein biztanle-talderi zuzenduta dauden kontuan hartuta, biztanle guztiei orokorrean eta adinekoei emandako arretarako erabili zen baliabide gehien; izan ere, bi talde horiek gastuaren %68 izan zuten.

Biztanle guztientzako baliabideetan gastuaren %38 erabili zen. Gainera, horien artean kopuru eta gehikuntza aldetik garrantzitsuenak honakoak izan ziren: familiei egindako transferentziak (Oinarrizko Errentaren programak dituztenak), 125 milioi eurokoak, eta bestelako transferentziak, 62 milioi eurokoak (%+67), batez ere seme-alaben ziozko eta frankismoaren biktimentzako laguntzetarako zuzeneko laguntzak.

Gizarte zerbitzuetan 65 urteko eta gehiagoko %9ari eman zitzaion arreta

Gizarte zerbitzuek batez ere hiru arlotan esku hartzen dute adinekoen kasuan: egoitzako zerbitzuak, eguneko asistentzia-zentroak eta etxeko etxeko laguntza zerbitzuak. Izan ere, gizarte gero eta zaharragoa da eta pertsona horiek gero eta beharrezkoagoa dute besteen laguntza.

Egoitzetan eta etxebizitza komunitarioetan 14.430 plaza zeuden; horrela, 65 urteko eta gehiagoko 100 adineko bakoitzeko 3,7 plaza bete ziren eta kopuru hori Estatukoaren antzekoa izan zen. Azken hamar urteetan eskaintza gehitu egin da, urtean %4 gehituz

(+4.792 plaza). Herri Administrazioak plazen %72 eskaini zuen: plazen %41 publikoak eta gainerako %31 itundutako pribatuak.

Etxean zahartzeko alternatibaren eskaintza sustatu da

Aldi baterako egonaldietan eta tutoretzapeko apartamentuetan 608 plaza izan ziren, 2003. urtean baino %42 gehiago. Bestalde, eguneko zentroetan 2.642 plaza izan ziren; ondorioz, azken hamarkadan plaza kopurua lau aldiz handiagoa izan da (urte artean %14).

17.800 adinekori eman zitzaion arreta bere etxean (100 adinekotik 5i), hau da, etxez etxeko laguntza zerbitzua duten %90ari. Azken hamar urteetan, zerbitzu horretan sartzen diren erabiltzaileen kopurua urtean %8 gehitu da, batez beste.

Zerbitzu honek 57,8 milioi euroko gastua izan zuen (aurreko urtean baino %15 gehiago); beraz, urtean, batez beste, erabiltzaile bakoitzeko 3.036 euroko gastua egin zen eta gastu gehiena (%90) sektore publikoak finantzatu zuen.

2. taula: gastuaren bilakaera eta banaketa, biztanleen arabera

	2004	2003	Δ% 04/03
Gastua (mila euro uneko)	1.196.320	1.073.054	11,5
Biztanleria oro har	458.008	388.093	18,0
- Familietarako transferentziak	265.593	227.127	16,9
Haur-Gazteak	38.221	34.003	12,4
- Egoitzak	29.048	25.567	13,6
Zaharrak	345.852	335.921	3,0
- Egoitzak	296.983	287.724	3,2
Ezgaitsuak	286.076	253.904	12,7
- Egoitzak	43.533	42.345	2,8
- Lanbide-zentroak eta EZB (1)	189.707	162.335	16,9
Emakumeak	6.446	5.817	10,8
Zokoratuak	61.717	55.317	11,6

(1) Enplegu-zentro bereziak

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel:+34-945-01 75 47 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>